

laister berri



Beasaingo udala

168 | IRATZAR 2008

001

AURKEZPENA

002

BEASAINGO
ESAMOLDEAK

003

IGARTZAKO
ZUHAITZAK

004

UDALEKUAK

005

ARGIZPI

006

ERRENTA
AITORPENA

007

BERTSO ESKOLA

010

EKINTZAK

AURKEZPENA



Gipuzkoako Dantza Talde ezberdinetako Dantzari Txikiak bilduko dira Beasainen hilaren 25ean, Aurtzaka Dantza Taldearen eskutik eta goizeko 11:00etatik aurrera, taldeen bilkura eta hamaiketakoaren ondoren, dantzari txikien desfileaz gozatu ahal izango dugu herriko kaleetan. Geldiuneetan euskal dantzak ere dantzatuko dituzte eta 13:00etan alardea eskainiko digute San Martin plazan.

Diseño:
ah_comunicación
Maquetación:
ah_comunicación
Redacción:
ah_comunicación
Publicidad:
ah_comunicación
Impresión:
Gráficas
San Martín C.B.
Deposito Legal:
SS-654/96
Redacción:
Martina
Maiz 3/2.
bulegoa
T 943 882 257
F 943 027 639
E ah@clickah.com

Beasaingo Kultura
Batzordea reparte
mensualmente 6.500
ejemplares de esta
publicación en los
buzones de Beasain.

Eragilea:

kultura saila



Beasaingo udala

Jungo ninukek zuekin Usurbea,
baino bizikletea pronto jarri
beharrean neok



"Liburu berri honek

"Beasaingo Euskara" liburuaren anaia bihurtu izan nahi du. Beasaingo euskara liburuarekin irakurleak bere-bereak duen hizkuntza errealitatea hurbiltzea izan zen helburua; hizkuntzaren azterketa jaso zen bertan. "Beasaindio" liburuak, ordea, belaunaldien arteko katebegi izan nahi du, gazteei herriko esamoldeak ikasteko eta gozatzeko tresna emanez.

Lan berri hau egiteko, herriko euskara jaso eta ikertzeko egindako lana hartu da eta hustuketa lan bat egin da. Hortik, lehengo beasaindarrek erabiltzen zituzten esamoldeak egungo egoeretan erabili dira komiki bidez. Horretaz gain, proposamen didaktikoak ere jaso dira hizkuntzaren lanketarako.

laister berri

IGARTZAKO ZUHAITZAK



Orain bi hamarkada Igartza inguruko lurak nekazaritzarako erabili ohi ziren, hain zuzen, Dolarea inguruan arto eta gari alor handiak landatzen ziren. Beasain asko hazi da ordea eta Igartza, egun, hirigunean kokaturik dagoenez gari hartako nekazaritza lurak egungo berdegune bilakatzen ari da. Errekaz baliatuz Igartza multzoaren perimetrorako hesi berde baten diseinua egin da haren monumentu eta paisaia balioak areagotzeko asmoarekin. Honetarako hainbat zuhaixka eta zuhaitz ahikor mota ezberdinen landaketari ekin zaio.

Landatu diren zuhaitzen artean Virginiako Tuliperoak edo Liriodendroak azpimarratu daitezke. Baiona ondoko Atumi erreka ondoan kokaturiko mintegitik zazpi ale ekarri dira guztira. Errolurretan mugitu behar izan dira lekuz zortzi metrotik gorakoak baitira ekarri diren aleak orain hosto berde argidunak, udazkenean doratudunak. Hauen ondoan pagoaren antzerakoak diren lau xarma landatu dira; baita udazkenean kolore gorri nabarmenak dituzten bost likidambar ere. Guztiak Dolarea inguruan Nafarroa etorbiderantz; lau xarma eta bost Likidambarren ondoan 16 erramu ere landatu dira. Beste aldetik, aldiz, bi intxaurrondo gazte jarri dira gaixoturiko zaharren lekuan zaharrak gaixo daudelako.

Jauregiaren eta burdinolaren inguruan 16 gereziando, 11 astigar arrunt, 5 lizar, 6 makal eta 5 lertxun (ohikoak bide zahar ertzetan eta errekastuetan), 5 haltz eta 4 hurritz landatu dira. Landatutako zuhaixkak aldiz gure ingurunean ohikoak direnak landatu dira estaerako erramuak, elorni zuria, haginak, gorostiak, intsusak, viburnumak eta cornusak guztira 1000 aletik gorako hesi berdea osatuz.

UDALEKUAK

2008ko udako oporrei begira Udal zerbitzuek eskaintza zabala egiten diete haur eta gaztetxoei. Aisla, musika naiz kirol ekintza ugari izango dituzte aukeran.

	AISIA	MUSIKA	KIROLA
ADINA	9-12 eta 12-16 urte	4-5 eta 6-12 urte	4-5 urte KOLONIA TXIKI 6-16 urte KIROL KOLONIA 9-16 urte KIROLA NATURAN
NOIZ	9-12 urte Ekainaren 23tik uztailaren 11ra. 12-16 urte Uztailaren 1etik 18ra	Ekainaren 23tik uztailaren 4ra.	Ekainaren 23tik uztailaren 4ra.. Uztailaren 7tik 18ra.
NON	Loinazko San Martin plazan. Gazteguneari.	Loinatz musika eskolan. Loinazko San Martin plazan.	Antzizar Kiroldegian.
JARDUERAK	Jolasak, euskara, kultura, natura,...	Jolasak, marrazketa, mimoa, dantza, musika...	Igeriketa, jolasak, tenisa, kirol jokoak, arku tiroketa,...
MATRIKULA	Ikastetxe, gaztegunea eta ludoteketan. Maiatzaren 19tik ekainaren 2ra.	Loinatz musika eskolan. Ekainaren 6ra arte.	Antzizar Kiroldegian. Ekainaren 2tik aurrera.
PREZIOA	71,61€	115€	50€ bazkideak 88€ es bazkideak
INFORMAZIOA	943 028 063	943 028 105	943 887 900



Euskal Herriko Argazkilari Elkartearen Federakuntzaren Batzarra hilaren 24ean ospatuko da. Oraingo honetan, Argazkilari Elkartearen Federakuntza sortu zenetik lehendabiziko aldiz, Beasaingo Udalerrian lekutuko da.

Batzarrean pasa den urteko kontuak aurkeztuko dira, baita datorren ekitaldirako aurrekontuak ere, egin diren ekintzen zerranda aztertuko da eta etorkizunerako antolatuko direnak aurkeztuko dira.

Euskal Herriko Argazkilari Elkartearen Federakuntza legez sorturiko kultura elkarte da, gaitasun juridikoduna, bertan federaturik dauden Euskal Herriko argazkilari elkartearen ordezkari gaitasuna duena. Euskal Herriko Argazkilari Elkartearen Federakuntza bere egunean sarrera eskatu eta batzar artezka-riak onartutako elkarte, lagunarte eta talde ezberdinek osatzen dute. Beste hainba-ten artean Argizpi Argazki Elkarte da partaideetako bat.

Federakuntzaren helburu nagusiak ondorengoak dira: argazkilari elkarte ezberdinen arteko loturak indartzea; argazki lehiaketen egunean egunekoak zuzenak izan daite-zen irizpideak eragitea; argazkilaritza eta argazkizaleatasuna Euskal Herrian sustat-zea; eta nazio mailako nazioarteko argazki ekintzak antolatzea.

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

EGIN EZAZU EUSKARAZ 2007KO ERRENTA AITORPENA

Iritsi da 2007ko errenta aitorpena egiteko garaia. Beasaingo Udalak eta Foru Aldundiak euskaraz egitera gonbidatzen gaituzte. Izan ere, euskaraz egiten dutenak gero eta gehiago izan arren, askoz ere gehiago dira gaztelariaz egiten dutenak.

2006. urteko errenta kanpainan beasaingarrek 6.954 errenta aitorpen aurkeztu zituzten guztira, eta horietatik Foru Ogasunarekin harremanak euskaraz eskatu zituztenak 361 izan ziren. 2007. urteko errenta kanpainan kopuru hori haztea dugu helburu.

Errenta aitorpena euskaraz egiteko dauden aukeren berri eman nahi dizugu, modalitate bakoitzean urrats garrantzitsuak eman baitaitezke euskara gehiago erabiltzeko.

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA

Zergadun batzuei etxera bidaliko zaizue proposamena, Foru Ogasunak eskura daukan informazioan oinarritutakoa. Proposamena ontzat ematen badugu, bi bide daude onartzeko: telefonoz edota Internet bidez.

Proposamena eta eskutitza ele bietan jasoko dituzu. Telefonoa erabiliz gero, euskaraz hitz egin eta Ogasuneko langileak euskaraz beteko du aitorpena; gainera, aurreantzean Foru Ogasunarekin dituzun harremanak euskaraz izan daitezten nahi ote duzun galdetuko dizute. Internetez eginez gero, euskarazko aukera erabil dezakezu.

MEKANIZATUA

Foru Ogasuneko bulegoetan egiten da eta horretarako hitzordua eskatu behar da telefonoz edo Internetez.

Telefonoak euskara aukeratzeko bidea emango dizu, baita Interneteko atariak ere. Aitorpena egiterakoan bulegoan euskaraz hitz egiten baduzu, langileak euskaraz beteko du zure aitorpena; hala ere ziur egoteko, adieraz lezaiozu aitorpena euskaraz egiteko borondatea. Bukatzeko, aurreantzean Foru Ogasunarekin dituzun harremanak euskaraz izan daitezten nahi ote duzun galdetuko dizute.

TELEMATIKOA

Baimenduta dauden erabiltzaileek har dezakete bide hau, eta batez ere finantza erakundeek eta artezkanitza eta aholkularitza zerbitzuek erabiltzen dute. Gune honetara gure sarreraren, gastuen, konkarien eta abarren frogagiriak eramán eta bertako langileak arduratzen dira aitorpena egin eta bidaltzeaz. Bezero jakin batzuentzako zerbitzua izan ohi da. Espresuki adierazi beharko duzu bertan euskaraz egiteko borondatea.

NORK BERE BIDETIK

Inprimakia nahiz CD-Roma erosita edota Internet bidez, nork bere aitorpena ere egin dezake. Estankoeetan, Ogasuneko bulegoetan edo Interneten eskura daitezke inprimakia. Inprimakiak ele bietan daudenez, zeuk erabaki ahal izango duzu zein hizkuntza erabili.



Badira lau urte Ahozketasuna eta Bertsofarietza egitasmoa jarri zela martxan Beasain-
go eskoletan. Udala eta eskolak bat etorri ziren ahozketasuna lantzeko tresna bat
behar zela esaterakoan eta baita asmatu ere.

laz, ordea, beste pauso bat eman eta Bertso Eskola sortu zen Beasainen. 2008-2009
ikasturtean ere aukera hori eman nahi die Udalak herriko haurrei eta gazte txoei.

Ezaugarriak:

- 1.- Klasea ordu eta erdikoá izango da.
- 2.- Asteazkenetik behin izango da klasea, irailean hasi eta maiatzera arte.
- 3.- 8 urtetik gorako haurrak onartuko dira.
- 4.- Matrikula 30 euro.
- 5.- Klaseak asteartetik 17:15-18:45 eta asteazkenetik 17:00-18:30
- 6.- Matrikulatzeko epea: maiatzaren 22tik ekainaren 13ra arte.
- 7.- Matrikula orria eskolako idazkaritzan jaso eta betetakoan
idazkaritzan entregatu.

Infomazio gehiago: euskera@beasain.net edo 943028063 telefonoan